

**2015EKO URRIAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia.

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ETORRI GABEA: AITOR LARBURU IZAGUIRRE (Beasaingo EH BILDU)

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2015eko irailaren 24ko aktaren onespena.

2015eko irailaren 24ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- KREDITU ALDAKETA: kreditu gehigarriak, 8. zenbakia

Ezagutzera eman da, Alkatearen proposamena:

“Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 8. Kreditu gehikuntzen bidez 132.800,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila/ Partida Presupuestaria	Kontzeptua / Concepto	Kredituak / Créditos		
		Egun g k / Actuales	Aldaketa k / Modificac.	Behin betikoak / Definitivos
1.5000.622.925.00.01	Harrera bulego berria egokitzea /Acond.	71.900,00	10.000,00	81.900,00
1.5000.600.135.00.01	IGUNEA	1.030,00	32.800,00	33.830,00
1.5000.601.337.30.02	6. Sektoreko luizia/Desprendimiento del	50.000,00	50.000,00	100.000,00
1.5000.601.153.10	sector 6 Azp. eta urb.: Iturralde parkea Gipuzkoa plazako zubia/Puente plaza Gipuzkoa	0,00	40.000,00	40.000,00
GUZTIRA / TOTAL		122.930,00	132.800,00	255.730,00

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak Concepto de ingreso	Izena/Denominación	Sarrera handiagoak/ Mayor ingreso
870.01	Kreditu gehigarriak finantzatzeko gerak. Remanente tesorería finan. Cdtos. Adic.	132.800,00
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		132.800,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- ORDENANTZA FISKALEN ERANSKINAK: 2016rako tarifak onartzea.

Alkate jaunak, Hazienda batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Hazienda Batzordeak 2015eko urriaren 26an egindako bileran, Udalbatzari, 2016an aplikatzekoak izango diren tasa eta zerga-tipoei buruz, ondorengo PROPOSAMENA egitea erabakitzen du:

ZERGAK:

Zerga guztietan indarrean dagoen zerga tipoa mantentzea.

Hala ere, ondorengo aldaketak ezartzen dira:

HONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA:

Ordenantza arautzailearen 8.artikuluaren d) atala aldatzen da eta modu honetan idatzia geratzen da:

“d) Kuota osoaren gaineko hobaria BIZIGUNE, ASAP edo antzeko programen bidez alokairuan emandako etxebizitzaren kasuan. Hobari hau bateraezina izango da, aurreko c) atalean ezarritakoarekin eta ez da aplikagarria izango, alokairu erregimenean eraikiak izan diren eta titularitatea Eusko Jaurlaritzarena edo bere beste edozein sozietate instrumentalarenak direnean”.

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA:

Hobarien 3 atala aldatzen da eta modu honetan idatzia geratzen da:

“3. Ibilgailuak kontsumitzen dute karburante mota (GLP, gas naturala, bioetanola eta hidrogenoa) edo motorraren ezaugarrien arabera (elektriko hutsak, hibridoak eta autonomia zabalduko hibridoak) %50eko hobaria izango dute, baldin eta horien erabilpena mesedegarria bada ingurugirorako. (aipatutako egoera, ezaugarri hau jasotzen duen zirkulazio-baimenaren aurkezpenarekin egiaztatu beharko da)”

TASAK:

a) Zabor-bilketa:

- Tasa bakarra ezartzea, tarifa mota bakoitzeko, eta kopuru hauetan ezarrita geratzen dira:

1.- BASURAS DOMÉSTICAS:

. Etxebizitzak	112,00 €
. Garaje Kolektiboa:	
50 plaza gehienez	406,00 €
50 plazatik 100era	609,00 €

100 plazatik gora 902,00 €

. Garaje bakarrekua eta lokal itxia: 67,00 €

2.- KOMERTZIOETAKO ZABORRA:

a) Sukalde zerbitzua duten tabernak (pintxo, bocadillo, plater konbinatuak)	546,00 €
b) Jatetxeak	633,00 €
c) Supermerkatuak:	456,00 €
d) Supermerkatu handiak	1.450,00 €
e) Fruitategiak	456,00 €
f) Hondakin organikoa sortzen duten elikadura arloko bestelako dendak.	456,00 €
g) Harategiak	290,00 €
h) Arraindegia	290,00 €
i) Elkarrekin gastronomikoak :	546,00 €

2.2. SUKALDE ZERBITZUA EZ DUTEN

TABERNAK 456,00 €

2.3. HONDAKIN ORGANIKOAK

SORTZEN EZ DITUZTEN ELIKADURA

ARLOKO DENDAK 293,00 €

2.4. BESTELAKO DENDAK, BILTEGIAK 293,00 €

2.5. ZERBITZUAK 290,00 €

2.6. BILTEGI HANDIAK ETA ANTZEKOAK 1.450,00 €

3.- INDUSTRIETAKO ZABORRAK:

. Garaje kolektiboa	456,00 €
. Tailerrak (40 langilera arte)	570,00 €
. Fabrikak: (40 langiletik gora)	795,00 €
. Abeltzain esplotazioak (ikuiluak)	137,00 €

- Sortzapena eta ordainketa epeak ondoren adierazten den bezala finkatzea:
"Tasa, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean sortuko da eta urtean bitan kobratuko da"

b) Hilerria

Lurrean hobiratzeagatik, 387,20 €ko tarifa ezartzea.

c) Ibilgailuen aparkaldi mugatua T.A.O.:

Egoiliar txartelaren kobrantza, bai alta eta bai baje kasuetan, hilabeteka hainbanatzea, eta txartelaren karga aukerak 10, 20 eta 30 eurotan ezartzea.

d) Igartzako Monumentu multzoko bisita gidatuak:

Prezioak aldatzea, honela ezarriz:

Sarrera orokor bakoitzeko: 4 €

Sarrera murriztu bakoitzeko (15 kide baino gehiagoko taldeentzako): 3 €

e) Gainerako tasa eta tarifak: Aldaketarik gabe.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak): “Estamos en contra del incremento de la tasa de basura. El PNV propuso aprobar una bonificación por la utilización del contenedor marrón y ahora se elimina esa bonificación y se incrementa la tasa en un 40%. Se actúa de manera diferente estando en la oposición o en el gobierno. Habéis hecho lo más fácil.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Orain arte kontuan izan ez den errealitateari aurre egin behar diogu. Zaila dena da, gobernuan egonda horrelako proposamenak egitea. Hobaria kendu egiten dugu azken bi urtetan bide bat egin delako. Birziklapen tasa emankorra izan da, edukinontzi marroiaren erabilera areagotu egin delako eta martxan jarriko diren sentsibilazio kanpaineekin gehiago erabiltzea espero dugu. Orain igotzea proposatzen den tasa hori bitan ordainduko da. Bestalde, astean behin “chip”arekin irekiko den edukinontzi grisa jartzeko aurreikuspena ere badago eta horrek hobariarekin desegokitasuna dakar. Edukinontzi grisa martxan jartzea, lehengo legealdian hartutako erabakia da.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak): “El incremento de la tasa nada tiene que ver con el contenedor gris”.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Tasaren igoerak Sasieta Mankomunitatetik datorkigun beharrari erantzuten dio. Zein da zuen proposamena?. Ez igotzea?”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak): “Lo que estamos haciendo es preguntar al equipo de gobierno. Hasta ahora no se ha subido en la proporción que se debía de haber incrementado.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gu ez igotzearen aldekoak gara. Kasu honetan igoera ezin daiteke justifikatu KPI igo delako, negatiboa izan baita. Gure ustetan Igartzako, Usurbe zineko eta zabor tasak ez dira igo behar. Lehenengo bi kasutan orain dela gutxi martxan jarritakoak direlako. Zabor tasari buruz esan, ez dugula egokia ikusten %40ko igoera eta aldiz ondo iruditzen zaigu zaborraren inguruko bi tasa ezberdinak kentzea. Denborak arrazoia eman digu eta sarrera eta gastuen oreka mantendu da. Birziklapen tasa igotzen den heinean, tasaren kopurua gutxiagotu egingo litzateke.

Lehengo legealdian, igoerak %8 ingurukoak izan ziren eta orain ere igoera linealak proposatu beharko lirateke.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Aipatzen duzun linealidade horrek ez dio arazoari aurre egiten eta gainera hori aipatzea orain!. Ingurumen Sailak, Sasietako zabortegia lau urteetan itxi egin beharko zela zioen eta lau urteetan ez bazen seian eta hala era, 2012. urtean %0 igoera eman zenean eta lehengo urtean %8a, nahiz eta Sasietatik %53ko igoera egin behar zela adierazi inbertsioak egin behar zirelako!. Orduan ezezkoa esan zenuten, eta orain lineala izan behar dela esaten duzue?. Europak gomendatzen du %60ko birziklapen tasaraino iristea.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Lehengo legealdia aipatzen da, baino atzerago joan behar da. Ondo dago gomendioak kontutan hartzea, bai denonak ez bakarrik batzuenak.”

Xabier Matarranz jaunak (EAJ-PNV): “Tasa hori ezarri zenetik, presaren musealizazioa ere gauzatu da, beste eremu bat prestatuz. Bisita gidatu asko ikastetxeei zuzendutakoak dira eta gaur egun material osagarria eskaintzen zaie bisita horietan, mailaz mailako unitate didaktikoak eskaintzen zaizkie. Gau egun bisita gidatu antzeztua egiteko aukera ere, ematen da. Gaur egun bisita gidatua eta talo tailerraren eskaintza ere egiten da. Hori guztia kontuan izanda kolektiboentzako 40 zentimo igotzea, BEZ barne, adostu zen. Usurbe zineko tasak, aldiz ez dira igo.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Egia esan gu ez gaude ados, Igartzan tasak igotzearekin.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, igoerak jasaten ez dituzten tarifak (hilerrikoa barne), bozkatu dira eta aho batez onartu dira.

Jarraian Igartzako tasak bozkatu dira eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH-BILDU)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da.

Bukatzeko, zabor tasa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 7 (Beasaingo EH-BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak).

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da.

4.- TAXIS. Aprobación de tarifas para 2016.

Ezagutzera eman da Hazienda Batzordeko proposamena:

GAIA.- Taxi-zerbitzuaren 2016ko tarifak.

1.- (AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, Goiekiren bidez, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikatzeko 2016 urterako tarifen onespena eskatu du.

2.- Egindako eskariaren arabera, 2015 urtean indarrean dauden tarifak, igoerarik gabe, mantentzeko proposamena egiten da.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, Hazienda Batzordeak Udaltzari ondorengo akordio proposamena egiten dio:

Lehenik.- Gipuzkoako Taxisten Elkarteak proposatutako kostuen estudioaren onspena.

Bigarren.- 2016 urtean, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikagarri izango diren ondorengo tarifak onartzea:

	Abiasaria /Bajada de bandera	Ibilitako kilometroa Kilómetro recorrido	Itxarote ordua Hora de espera
Tarifa 1*	3,4588 €	1,0828 €	20,6819 €
Tarifa 2**	3,4588 €	1,7269 €	32,5052 €

- **Lanegunetan 07:00tik 22:00arte**
- **** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larubatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.**

Hirugarren.- Goiekiri akordio honen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- ERAIKINAK ZENBATZEA: Gudugarreta auzoa.

Ezagutzera eman da, Hirigintza Batzordeko proposamena:

“Gaia: eraikinak zenbatzea

Interesatu batek horrela eskatuta, Gudugarreta auzoan dauden bost eraikinen zenbakiak errebisatu dira, zenbaki horiek bat ez datozelako hiri ondasun higiezin gaineko zergaren erroldan, udal erroldan eta eskrituretan azaltzen direnak.

Dagoen nahasketa konpondu nahian, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egin dio:

Lehenik. Apatutako higieziinei ondorengo zenbakiak ezartzea:

- Aguirrebarrena baserria (katastroko erreferentzia, 6367035) poligonoaren ekialdean kokatuta dagoena: **5 zenbakia.**
- Aguirrebarrena baserria aurrekoaren Iparraldean kokatuta dagoena (katastroko erreferentzia, 6367018): **4A.**
- Aguirrebarrena baserria aurrekoaren Mendebaldean kokatuta dagoena (katastroko erreferentzia, 6367034): **4B**
- Aguirrebarrena baserria aurrekoaren Mendebaldean kokatuta dagoena (katastroko erreferentzia, 6367001): **4C.**
- Aguirrebarrena baserria (katastroko erreferentzia, 6367033) poligonoaren mendebaldean kokatuta dagoena: **3 zenbakia.**
- Astillas GOIERRI S.L., ARRIARAN AUZOA, 35.(20218)

Bigarren. Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Katastroko Zerbitzuari ematea, hiri ondasunen erroldan dagokien aldaketak egin ahal izateko.

Hirugarren. Erabaki honen berri higiezin horien jabeen nahiz udalaren biztanleen erroldako arduradunari ematea, behar diren aldaketak egiteko edota kasu bada, dagozkien baja eta altak emateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

6.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.
Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna.

**“AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO
EGUNA”**

Azaroaren 25a dela eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna”, gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai halaber sexismo-modu guztiekiko, barne daudelarik finenak eta normalizatuenak, hala nola sexuen arabeko rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela eta, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politikak baliatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituraren bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoek eta gizonezkoek, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guztiekiko tratu onak bermatuko dituen gizarte batean bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizartea eta, emakumeenganako indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde argiro azalduko den gizartea. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizartea. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ezak dakarren mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratu onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeako orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarduerak gure baitatik berrikusten hasi.

Horregatik guztiagatik:

- Konpromisoa hartzen dugu gure eskuduntzen esparruan udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.
- Eta herritarrek gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzaten, urteko egun guztietan, baita azaroaren 25a dela eta burutuko diren ekitaldietan parte har dezaten ere,

bai halaber gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako 'Beldur Barik' ekimenean."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

7.- BIZKAIKO BATZAR NAGUSIARI ESKAERA. Gernikako arbolako kimu baten eskaera.

Alkatea jaunak (EAJ-PNV) ondorengo proposamena egin du:

"Bizkaiko Batzar Nagusiei Gernikako arbolaren kimu bat eskatzea, azaroaren 10ean ospatuko den Memoriaren Eguna dela eta, bizitzeko eskubidearen urraketen biktimei eta haien senideei aitorten instituzionala egin nahi dielako Beasaingo Udalak.

Oroitzapen ekitaldi hori Barandiaran parkean egingo da, 19:00etan eta biktima horiei guztiei lore-eskaintza bat egingo zaie eta Gernikako arbolaren kimu bat ere landatu nahi da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): "Ados gaude baina biktima guztiak aintzakotzat hartzen badira. Zerrenda bat dago, baina ez dira denak aurreikusten. Falta direnak azaltzen badira, ados."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Denak egotea da helburua."

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

8.- EUSKADI LAGUNKOIA PROGRAMA. Beasain herria lagunkoia izatea.

Alkate jaunak (EAJ-PNV) ondorengo proposamena egin du:

"Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Euskadi Lagunkoia martxan jarri duen programari atxikitzea. Izan ere, Programaren horren helburua erakundeak, eragileak eta pertsonak mobilizatzea da, gure auzo, herri eta hiriak gune lagunkoi bihurtzeko asmoz, oztopo fisikorik gabe bizitzea eta pertsonen arteko trabarik gabe bizikidetzan egotea lortzeko.

Ekimenak adinekoak ditu protagonista, baina, aldi berean, herritarren partehartzearen ideia nabarmentzen du, zeregin horretarako ahalik eta pertsona gehien behar direlako, horien adina edozein izanda ere."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

9.- HIZKUNTZA POLITIKA. 2015-2019 agintaldirako hizkuntza politikaren oinarriak eta lehentasunak.

Ezagutzera eman da, Hizkuntza Politika Batzordearen proposamena.

"Gizarte elebiduna da gurea, eta bi hizkuntza horietako bat gutxitua da. Hizkuntza gutxituak dituzten herrialdeen testuinguruan kokatuta, nahi dutenek alor guztietan hizkuntza gutxitua erabili ahal izatea bermatzea dagokie herri erakundeei. Eta horretarako indarrean dagoen legeriaren barruan euskararen erabilera indartzeko hizkuntza politika positibo eta eraginkorra definitzea.

Aurrekoa kontuan hartuta Udalak onartuta ditu ondorengo araudia eta planak:

- Euskararen Udal Ordenantza (1990eko martxoaren 8an)
- ESEP 2014-2017 aldirako plan estrategikoa (2014ko azaroaren 20an)
- Administrazioko Erabilera Plana 2013-2017 plangintzaldia (2014ko apirilaren 3an)

1.- Beasaingo Udalak hizkuntza politika egiterakoan ondorengo hiru zutabeak hartuko ditu kontuan:

- a) Hizkuntza eskubideen aitorpena eta babesa.
- b) Euskararen eta euskal kulturaren erakargarritasuna.
- c) Egoera soziolinguistikoa oinarrituta erabilera hazteko neurriak.

2.- Udalak euskararen erabileran eragiteko:

- a) Esparru publikoko hizkuntza ofizialen erabilera arautuko du.
- b) Euskararen aldeko hizkuntza politika ez neutrala eta ez diskriminatzailea egingo du.
- c) Hizkuntza politika progresiboa, adostua eta eragingarria egingo du.

3.- Euskararentzat gune eta funtzio zehatzak sortu, sendotu eta hedatuko ditu udalak.

4.- Euskarazko kultur produktuen eskaintza eta kontsumoa hazteko neurriak hartuko ditu ondorengoak kontuan hartuta:

- a) Kontsumoa dibertsifikatuko da ahalik eta esparru gehienetara hedatzeko.
- b) Euskarazko kultur produktuen kalitatea zaindu.

5.- Elebidunon erantzukizuna erabileraren aldeko pausua ematea da, eta elebakarrena berriz, euskarara hurbiltzea. Zentzu horretan urratsak emango dira progresiboki.

6.- Haur eta gazteen esparru ez formaletako eskaintzari arreta berezia jarri behar zaio; eta horretarako, erabilera aukerak sortu eta erakargarritasuna landu behar dira.

7.- Euskararentzako arnasguneak sortu eta zabalduko dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Ados esaten denarekin, martxan dauden planak onartzen direlako. Egia da paperak dena jasaten duela, baina helburu horiek betetzeko ekintza zehatzak burutu behar dira eta horretarako kronograma bat egin eta egin ondoren neurtu zenbateraino burutu diren ekintza horiek.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ekintza horiek zeintzuk izan behar diren batzordeak landu egin beharko dira.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

10.- MOZIOA. Stop desahucios-en mozioa, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutakoa.

Alkate jaunak, “Kaleratzeak stop desahucios e IRPH stop” plataformari hitza eman eta plataforma horretako ordezkari batek ondorengo mozioa irakurri du:

“Giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmen nagusiek zein Espainiako Konstituzioak etxebizitza eskubidea politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarri gisa arautzen dute. Hortaz, eskubide honen sustapenak materia honen gainean eskumenak dituzten botere publiko guztien jarduera positiboa eskatzen du, hauen artean Tokiko Administrazioarena ere.

Egungo krisi ekonomikoaren ondorio larrietako bat familia askok euren ohizko etxebizitzaren mailegu hipotekarioarioaren kuotak edo alokairuaren errentak ordaintzeko bizi duten ezintasuna da. Egoera honek, etxebizitzaren galera ez ezik, langabezia eragindako gainontzeko ondorio tamalgarriak dakartza kasu askotan berarekin.

Tokiko Administrazioek ezin dute honen aurrean geldirik egon. Hiritarroi babesa eskaini eta etxebizitza eskubidea modu eraginkorrean bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak burutu behar dituzte. Kasu askotan, gainera, botere publikoek finantza erakundeen eta hiritarren harremanetan gero eta nabarmenagoa den desoreka berdintzeko lan egin beharko dute, halaber.

Horregatik, udalek ohizko etxebizitza galtzeko arriskuan dauden familia!< babesteko programa!< abian jarri beharko dituzte, aholkularitza eta bitartekaritza indartuz eta, betiere, KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS bezalako plataformekin elkarlanean.

Udalek, herritarrongandik gertuen dauden administrazioak direlako eta euren arazo, behar eta eskakizunak ezagutzen dituztelako, langabeziak estututa edo eurek sortu ez duten krisi ekonomikoak ordainezinak bilakatu dituen hipotekei aurre egin ezin dietelako, egoera kezkagarrian bizi diren milaka familien egoera zuzentzeko betebeharra dute.

Honengatik guztiagatik<, eta udal honetan ordezkaritza duten alderdi politiko eta hauteskunde-koalizioek sinatu duten KALERATZEEN, POBREZIAREN ETA DESBERDINTASUN SOZIALEN KONTRAKO DEKALOGOAREN

10. puntua bete dadin nahi dugulako, KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS plataformak ondorengo mozioa aurkeztzen du osoko bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadin.

MOZIOA:

1. Udaletxe honek "Kaleratzerik Gabeko Herri" deklaritzen du udalerri hau.
2. Udaletxe honek beharrezko diren baliabide eta neurri guztiak erabiliko ditu lehen etxebizitzako kaleratze eta irtenarazteak geldiarazteko eta, behar izanez gero, bizileku bat izateko aukera bermatzeko.
3. Udaletxe honek etxe-gabetzeak saihesteko jarduera guztiak koordinatuko dituen pertsona edo organismo bat izendatuko du, betiere Kaleratzeak Stop Desahuciosekin eta etxebizitza duin baten eskubidearen alde lan egiten duten gainontzeko elkarteekin lankidetzan jardunez.
4. Udaletxe honek udalerri honetan jarduten duten finantza erakundeengana joko du fede oneko zordunen kaleratzeak geldiaraz ditzatela eskatzeko, jabetzan dituzten etxebizitza hutsen errolda galdatzeko eta hutsik dauden etxebizitza hauek alokairu sozialeko programa publikoen zerbitzura jar ditzaten exjitzeko. Erantzunik jaso ezean, abian jarri beharreko neurriak aztertuko ditu, besteak beste, finantza erakunde hauekin lan egiteari uztea.

5. Udaletxe honek, kaleratze edo irtenarazte baten abisuaren aurrean, finantza edo administrazio erakundearekin bitartekotza egingo du etxegabetzea geldiarazteko eta, behar izanez gero, irtenaraztean udaltzaingoak komisio judizialari laguntza eman diezaioten ekidituko du, kaltetutako pertsonak bizi duen egoeraren larritasuna aztertuz eta konponbide justu eta egoki bat bilatuz. Etxegabetzea saihestu ezin izan denean, udaletxeak beharrezko neurriak hartuko ditu kaltetutako pertsonen arrazoizko prezioan alokairu sozialeko erregimenean berriz ostatu emateko.
6. Udaletxe honek kaleratzea edo irtenaraztea ekar dezaketen kasu guztien berri eman diezaioten galdegingo die epaitegi eskudunei, bazterketa arriskuan dauden kolektibo sozialak identifikatu, zerbitzu sozialek euren txostena eman eta kolektibo hauei bizileku bat eskaini ahal izateko.
7. Udaletxe honek, Alokabidek kudeatzen duen Etxebizitza Publikoen Parkeari dagokionean, LAKUAKO GOBERNUARI beharrezkoak diren erabaki eta modifikazio legalak burutu ditzan exijitzen dio, GASTEIZKO LEGEBILTZARRAK pasa den 2014ko apirilaren zazpian etxebizitza publikoen inkesten buruz hartutako akordioa beteazteko.
8. Udaletxe honek titulartasun publiko zein pribatuko etxebizitza hutsen inbentario bat egingo du lehenbailehen. Bere jabetzakoak hiritarren bizileku premien zerbitzura jar daitezkeen beharrezko diren neurriak hartuko ditu, bereziki fede oneko diren zordunen etxegabetzea saihestu ezin izan den kasuetarako. Era berean, hiriaren etxebizitza beharrak aztertuko ditu sei hilabeteko epean eta, hauen artean, pilaketak; erabiliak izan ezin diren etxebizitzak edo berritzeak behar dituztenak ere kontuan hartuko ditu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

11.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2015-09-21etik 2015-10-24ra bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2015-09-21etik 2015-10-24ra bitarte emandako Ebazpenak.

12.- ESKAERA ETA GALDERAK

SALAKETA PUBLIKOAK

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Salaketa publikoak izan dira adieraziz egungo gobernu taldeak, lau langile kanpora bota dituela, horietako bat arkitektoa delarik. 2012an BILDUk kontratu zuen beraien konfiantzako arkitektoa eta kontratua amaitu ondoren lanean jarraitu zuen kontuhartzaile eta idazkaritzako txostenen aurka. Legealdia amaitu baino egun bat lehenago, hain zuen ere, ekainaren 12, obra-zuzendaritza kontratua ere egin zen eta geroztik ez da etorri.

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Non azaldu da hori, egunkari batetan?. Nik justu ez dakit zein titularretaz ari zaren. Ez dut irakurri eta ez dakit despeditu edo zein hitz jartzen duen. Arkitektoa berriro ez etortzearen arrazoia badakizu zein den. Zuk zeuk esan zenidan esateko gehiago ez etortzeko.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Baina ez da despeditu.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Ez ez da despeditu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Horretara iritsi nahi genuen.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.